

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Bilboko Irakasleen
Unibertsitate Eskola**

GRADU AMAIERAKO LANA

NOLAKO ESKOLA- LIBURUTEGIAK DITUGU?

Lehen Hezkuntzako Gradua

Salinas Elorza, Jon
2016ko ekaina

Maite Serna

Aurkibidea

Abstract

Sarrera	5
1. Marko teorikoa	
1.1. Eskola-liburutegia hezkuntzan erabiltzea	6
1.1.1. Eskola-liburutegiaren erabilpen pedagogikoa	7
1.1.2. Hezkuntza praktikarekin lotutako jarduerak	7
1.2. Eskola-liburutegien ikusgaitasuna	9
1.3. Nazioarteko eremua	10
1.4. Arazoak non: liburutegiak erabiltzaileengandik urrun?	12
2. Ikerketaren diseinua	
2.1. Helburuak eta Hipotesiak	13
2.2. Metodologia	
2.2.1. Hautatutako lagina	13
2.2.2. Aldagaiak eta justifikazioa	14
2.2.3. Ikerketa tresnak	15
3. Emaitzen azterketa	
3.1. Kudeaketa eta funtzionamendua	16
3.2. Erabilera eta erabiltzaileak	21
3.3. Balorazioak	24
4. Ondorioak	26
5. Erreferentzia bibliografikoak	27

6. Eranskinak	
1. Eranskina. Liburuzainen galdetegia	28
2. Eranskina. Liburuzainekin elkarrizketa	30
3. Eranskina. Dimentsio desberdinen azterketa	36
4. Eranskina. IFLA/UNESCO-ren gidalerroak	41

Irudien aurkibidea

1. Irudia: Kurtso hasierako aurrekontua	16
2. Irudia: Guztizko aurrekontua aparteko diru sarrerak jaso ondoren	17
3. Irudia: Asteaz zehar, liburutegian parte hartzen duen eskolaz kanpoko pertsona kopurua	20

Taulen aurkibidea

1. Taula. <i>Eskola-liburutegien eguneroko ordutegia</i>	18
2. Taula. <i>Eskola-liburutegian burutzen diren jarduerak</i>	22
3. Taula. <i>Liburuzainen xedeak</i>	25

Abstract

Ikerketa honen helburua Bilbo inguruko eskola-liburutegien errealitatea ezagutzea da. Honetarako hiru ikastetxe desberdinetako eskola-liburutegiak aztertu dira; ingurune eta ezaugarri desberdinak dituzten ikastetxeak aukeratu dira errealitate desberdinak aztertzeko asmoz. Datuen bilketa, eskola-liburutegietako liburuzainei elkarrizketaren bidez eta egoeraren behaketaren bidez egin da. Aztertutako hiru dimentsioak “kudeaketa eta funtzionamendua”, “erabilera eta erabiltzaileak” eta “balorazioak” izan dira. Lortutako emaitzek indarguneak begi bistan utzi dituzte eta baita eskola-liburutegietan sumatutako gabeziak ere.

Gako hitzak:

Eskola-liburutegiak, ACEX, IFLA/UNESCO gidalerroak, Ebaluazioa, Lehen Hezkuntza, Liburuzaina, Hezkuntza-Komunitatea.

Esta investigación tiene como objetivo conocer la realidad de la biblioteca escolar de varios centros del entorno de Bilbao. Para esto se han analizado las bibliotecas escolares de tres centros; se han escogido centros con diferentes características y diferente entorno social para poder analizar de esta manera diferentes realidades. La recogida de datos se ha hecho mediante entrevistas a los bibliotecarios de cada biblioteca escolar. Las tres dimensiones analizadas han sido “organización y funcionamiento”, “utilización y usuarios” y “valoraciones”. Los resultados conseguidos han dejado a la vista los puntos fuertes de las bibliotecas escolares y también las cadencias encontradas en ellas.

Palabras clave:

Bibliotecas escolares, ACEX, IFLA/UNESCO directrices, Evaluación, Educación Primaria, Bibliotecario, Comunidad Educativa.

The objective of this research is to know about the reality of school libraries of Bilbao and the surroundings. Three school libraries of three different schools have been analyzed –located in different areas and with their own features– in order to study different realities. Interviews of librarians and observation of the situation has been used for data collection. Three dimensions have been analyzed: “management and operation”, “use and users” and “appraisals”. The results show both strong points and weaknesses found in those dimensions.

Keywords:

School Library, ACEX, IFLA/UNESCO guidelines, Evaluation, Primary Education, Librarian, Education Community.

Sarrera

Eskola-liburutegia ikastetxe askotan egon den gunea eta zerbitzua da, erabilera oso ezberdinak izan dituen eta jardura asko bere baitan hartu izan dituen. Baina erabiltzen al da egoki eskola-liburutegia gaur egungo ikastetxeetan?

Hezitzaile gisa irakasteko metodologia eta baliabide berriak bilatu behar ditugu eta eskola-liburutegiek, nahiz eta betidanik erabili den gunea eta zerbitzua izan, eraldaketa bat jaso beharko dute irakaskuntzarako baliabide berri eta zeharo erabilgarria izan dadin. Izan ere, irakaskuntza eredu eta ikuspuntu desberdinek bere isla dute eskola-liburutegiaren egungo ikuspegian; batzuentzat zigorrak betetzeko gunea da, besteentzako liburuak maileguan hartzeko gunea, beste batzuentzat etxerako lanak egiteko gunea da eta gehienentzako irakurketa sustatzeko gunea da bakarrik.

Alabaina, hezkuntza berritzailearen aldekoek aldarrikatzen dute eskola-liburutegiak oso gune interesgarriak izan ahal direla. Hala ere, eskola-liburutegien egungo erabilera eskasak argi erakusten du bere ahalmen guztia ez dela behar bezala erabiltzen, irakaskuntzari begira eskola-liburutegiaren potentzialtasuna handia baita. Hori dela eta, ikerlan honen xede nagusia eskola-liburutegiek dituzten aukerak aztertzea eta erakustea izan da, baita aztertzea zertan eta zergatik ez diren aukera horiek errealitate bihurtzen ere.

Etorkizuneko irakasleek jasotzen dugun unibertsitateko formakuntzan Lehen Hezkuntzako Graduan, ez da inolako ikasgai edota materia espezifikorik jasotzen eskola-liburutegi baten funtzionamendu eta xedeen inguruan. Bi alor hauek ezagutzeko helburuarekin burutu da eskola-liburutegiei buruzko ikerketa lan hau, sinesten baitugu ezinbesteko baliabidea dela XXI. mendeko hezkuntza sisteman.

1. Marko teorikoa

Gutziz beharrezkoa da eskola-liburutegia aberastasun pedagogiko ugari duen ezinbesteko hezkuntza baliabide bihurtzen duten ezaugarriak aipatzea. Eskola-liburutegiaren “Zer?” eta “Zertarako?” galderak argitu beharko ditugu eskola-liburutegiaren potentziala agerrarazteko, era honetan “eskola-liburutegiaren oinarrien justifikazioa ez badugu berriztatzen beharizan eta egoera berrien arabera, hezkuntza sistemak laster utziko ditu eskola-liburutegiak alde batera” (Durban, 2010:23)¹.

Durbanen arabera (2010) eskola-liburutegiak aukerazko baliabide modura erabiltzen dira ikastetxeetan, batzuetan ikaste eta irakaste prozesuarekin lotuta, teknologia berrien inplementazioarekin lotuta, irakurketaren sustapenarekin lotuta etab. Baina Durbanen ustez eskola-liburutegiak ezin dira aukerazko baliabide izan XXI. mendeko irakaskuntzan. Izan ere, eskola-liburutegiak beharrezko baliabidea dira: a) aukerak sortzen dituztenak irakaskuntza lanari laguntza handia eskaintzen eta b) curriculumaren garapenerako beharrezkoa den hezkuntza koordinazioan ere. Hala ere, eskola-liburutegiak ikastetxean eta hezkuntza sisteman benetan integratzeko eredu tradizionala irauli behar du eta bere baitan berriro hezkuntza sistemaren erronkei erantzunez.

1.1. Eskola-liburutegia hezkuntzan erabiltzea

Adituen arabera eskola-liburutegia da hezkuntzaren ezinbesteko ardatza zenbait arrazoirengatik: hainbat ikerketek erakutsi dutenez, trebetasun kognitiboen garapena errazten du, pentsamenduaren erabilpena bultzatzen du eta, horrez gain, komunikazio eta irakurketaren jarduerak sustatzen ditu. Arrazoi horiek justifikatzen dute liburuteigiaren erabilpena hezkuntza tresna gisa. (Durban, 2010). Aurreko arrazoiak gain, eskola-liburutegiaren ikasketa eredu aktiboa da kontzeptuak eta prozedurak eskuratzeko aukera ematen duelako (informazioa nola bilatu, baloratu eta transmititu).

¹ Itzulpena nik-neuk egin da.

Eskola-liburutegiak metodo magistralean oinarritutako eredutik, hau da testu liburuetan soilik oinarritutako metodotik urruntzen dira (Gomez, 2002).

Hau dela eta, liburutegiaren erabilpena planifikatuta egon behar da irakasleen eta liburuzainaren artean eta ikastetxearen curriculumari erantzun behar dio. Eskola-liburutegia ikas-komunitatearentzako baliabide bat bezala kokatzen da, eta metodologia estratgia desberdinak praktikan jartzeko erabiltzen da. Eskola-liburutegia eta ikas-komunitatearen kolaborazioaren ildotik Pascualek (2012) Ikastetxearen Irakurketa Plana (IIP) proposatzen du eta honela definitzen du: IIPa kolaborazio proiektua da, hezkuntza berrikuntzarako tresna eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren barruan integratuta dagoena. Bere helburuak honakoak dira: irakurtzeko eta idazteko ikasleen kompetentziak garatzea, irakurtzeko ohitura bultzatzea eta informazioa bilatzeko kompetentzia sustatzea.

1.1.1. Eskola-liburutegiaren erabilpen pedagogikoa

Durbanen esanetan (2010:33) “liburutegiak metodologia anitzen erabilpena errazten du. Estrategia horiek guztiz beharrezkoak dira ikasketa egoera zehatzetan; adibidez, ikerketa lanetan eta irakurmena bultzatzeko jardueretan”. Gainera, liburutegiak, Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) tresnekin batera, ikasketa testuinguru hibridoa osatzen du. Irakasteko eta ikasteko testuinguru hau oso egokia da jarduera didaktikoak aurrera eramateko eta emaitzak aztertu ondoren, beste egoera batzuetara, beste maila batzuetara edo beste arlo batzuetara zabaltzeko.

1.1.2. Hezkuntza praktikarekin lotutako jarduerak: Nola laguntzen duen eskola-liburutegiak.

Lan proiektuen arabera, ikasgela eta eskola-liburutegiaren arteko harreman jarraitua ziurtatu behar da, interbentzio eta interakzio egokiak planifikatzeko. Eskola-liburutegiak laguntzen du ikasgai desberdinak harremanetan jartzen eta oso baliabide aberasgarria da informazio iturri zehatzak erabiltzean (ikerketetan, adibidez). Liburutegitik proposamen anitzak egin daitezke (ikerketen inguruan, irakurketa eta

idazketa jardueren inguruan eta abar) ikastetxe osoari zuzenduta edo geletako eguneroko lanean laguntzeko. Jarraian eskola-liburutegiaren erabilera esanguratsua izan dadin, Durbanek (2010) egindako sailkapena daukagu:

1.- Ikastetxe osoari eskainitako laguntza jarduerak (ikastetxeko behar zehatzei erantzuteko sortuak).

1.1. Ikastetxean egiten diren proiektuei laguntza. Lan proiektuak osatzeko materialak eta baliabideak eskaintzea, eskura jartzea: a) Proiektuen dinamizazioa edo b) zabalpena errazteko jarduerak garatzea.

1.2. Kultura dinamizazioa inguruaren errealitatearekin lotuta. Herriko ospakizunekin edo gertakizunekin lotutako kultura deialdiak garatzea ikasturtean zehar: a) Zabaltzea, b) ezagutaraztea ikastetxearen giza inguruan antolatu diren ekitaldiak, c) topaketak eta abar.

1.3. Hezkuntza komunitateari zabaldutako espazioa denez, funtzio soziala. a) Behar bereziak dituzten ikasleentzat edo desberdintasunei erantzuteko ekintzak garatzea, b) irakurketaren zaletasuna familien artean bultzatzeko jarduerak antolatzea.

2.- Geletako lanari eskainitako laguntza jarduerak (programazioan eta prestakuntza sekuentzia zehatz bati lotutakoak)

2.1. a) Arlo edo gelako lanari laguntza. b) Irakasleek eskatuta, ikerketa lanak edo arazoei erantzuteko laguntza ekintzak garatzea. c) Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko asmoz, curriculum egokitzapenak eta ikasketa-laguntzak erraztea. d) Arlo desberdinen ikasketak indartzeko “auto-ikasketa” txokoak antolatzea.

2.2. Ikertzeko eta informazioa biltzeko trebetasunen ikasketari laguntza. Oinarrizko prestakuntza liburutegia erabiltzeko eta material desberdinak era egokian erabiltzeko laguntza jarduerak garatzea. Arlo bati buruz edo proiektu interdisziplinarrak garatzeko beharrezkoak diren lan kognitiboaren etapak garatzeko jardueretan laguntzea.

2.3. Irakurketa eta idazketarekin lotutako jardueren garapenean laguntza. Informazio baliabide bibliografiko zein digitalak biltzea eta sailkatzea, testu mota desberdinak erabiltzeko asmoz. Literaturaz gozatzeko eta prestakuntzarako literatura irakurketak prestatzea eta eskaintzea.

1.2. Eskola-liburutegien ikusgaitasuna

Agiri, praktika, ikerketa eta profesionalen arteko elkarrizketa nahikoa ditugu, hezkuntzan liburutegien garrantzia eta hauen presentzia ezinbestekoa dela adierazten digutenak. Hala ere, aurrerago ikusiko dugun modura, ikastetxe guztietan ez dira eskola-liburutegiak behar bezala baloratzen.

2002an Millán-ek koordinatutako “Informe de la lectura en España” txostenak eskola-liburutegiaren garrantzia argira ateratzera lagundu zuen eta baita hezkuntza sailek, irakasleek, argitaletxeak, ikertzaileek, pedagogoez eta kontuagoan hartzea eskola-liburutegia, azken urteotan hainbat ekimen hasi dira. Horri esker, irakurketaren eta liburutegien agerpena bultzatzen da ikastetxeetan.

Eskola-liburutegien garapenerako eta irakurketaren sustapenerako ekimenak martxan jarri dira Autonomi Erkidegoetan, baina helburu eta joera desberdinekin, besteak beste:

- Irakurketa eta idazketa proiektuak bultzatzeko.
- Liburutegi arduradunak prestatzeko
- Zerbitzu elektronikoak eta liburutegi birtuala garatzeko.
- Liburutegi sareen eraketa sustatzeko.

Lehen aipatutako 2008an egindako “Informe de la lectura en España” (Millán) txostenak bi helburu izan zituen: 1) gaur egungo eskola-liburutegiak deskribatzen dituzten ezaugarriak aztertzea eta 2) baloratzea eskola-liburutegien gaitasuna hezkuntza aldatetean parte hartzeko. Diagnosi horretarako, hiru aztergaien arabera sailkatu zituzten eskola-liburutegiak:

- 1- Datuak: Funtzionamenduaren eta erabileraren inguruan eskura dauden zifrak.
- 2- Praktikak: Ikastetxe, institutu, eta garapen programetan aurkitutako esperientziak.
- 3- Politika: Politika publikoen egonkortasuna eta ikastetxeek hauei ematen dioten garrantzia.

Txosten honen ondorioz azpimarragarrienak bi dira: 1) informazio gizarte berrian irakurtzea eta idaztea funtsezkoa dela eta 2) euskarri digitalek gero eta garrantzi gehiago dutela arlo guztietan eta baita curriculumean ere.

Orain urte batzuk, Espainiako eskola-liburutegietan garatutako programa desberdinei buruzko ikerketa sakon bat burutu zen (Jimenez Fernandez, 2008). Ikerketa horretan eskola-liburutegi desberdinen egoera deskribatzen da, liburuzain eta erabiltzaileentzako baliabideak aztertzen dira eta 500 liburuzaini egindako inkestaren emaitzak biltzen dira. Txosten honen ondorioetan agerian gelditzen da 1) liburu eta irakurzaletasunaren inguruko interesak gora egiten duela nabarmen 2) ematen du eskola-liburutegiak hezkuntza sistemaren barruan alderdi garrantzitsu bezala ikusten direla.

1.3. Nazioarteko eremua

Hala ere, nazioarteko eremutik urrun kokatu egin gaituzte gure herrialdeko datu edota zifra orokorrenak (Marchesi eta Miret 2005, IFLA/Unesco 2002). Izan ere, aztertutako datuen arabera, eskola-liburutegiari buruzko daukagun ikuspuntu mugatua agerian geratu da, besteak beste:

- 1- Eskola-liburutegiaren inguruan dugun ikuspuntu mugatua informazio bilaketa tresna gisa eta irakurketa ohituraren sustapenerako.
- 2- Eskola-liburutegien funtzionamenduan: espazioa, aurrekontua, bilduma, teknologia, ordutegia, lan sareak, arduradunak eta bestelako laguntzak.
- 3- Eskola-liburutegiek eskaini beharko lituzketen zerbitzu eta jardueretan.

Cristina Novoak (2015) aipatzen du Scottish Library and Information Council (SLIC) erakundeak egindako Eskoziako eskola-liburutegien egoera 2002-2013 urteetan. Azterketa honen bidez, eskola-liburutegien beste herrialde bateko egoera ezagutu dezakegu.

Scottish Library and Information Council (SLIC) erakundeak 2013. urtean ikerketa bat argitaratu zuen eta honetan biltzen dira eskola-liburutegiak ikasleen emaitza

akademikoetan dituzten kalifikazio onak nazioarte mailan. Honakoak dira eskola-liburutegiak egoki erabiltzeak dakartzan onura akademikoen frogak:

- Lorpen akademikoa: irakurmena, hizkuntza eta literatura, historia eta matematikari buruzko azterketa estandarizatueta ikasleek lortzen dituzte emaitza hobekoak, eta curriculum azterketetan kalifikazio hobekoak.
- Ikasketaren emaitzak: kalitate handiagoko lan proiektuak, informazioa erabiltzeko prozesuen eta praktiken ulermen hobekoa, ezagupen handiagokoak eta irakurmenaren garapena.
- Ikasketekiko jarrerak: motibazio handiagoko, lanetarako jarrera hobekoa eta irakurketarekiko gustua.

Horrez gain, txostenean identifikatzen da eskola-liburutegiak ikasketetan lagungarriak izateko beharrezkoak diren elementuak:

- Arduraldi osoa duen liburuzaina, prestakuntza profesionala eta kudeaketa funtzioak betetzen dituen.
- Eguneroko egitarauak dinamizatzen dituen laguntza langileak. Horri esker, liburuzainak aukera izango du jardura desberdinak egiteko: prestakuntza, elkarkidetzeta eta bilduma garatzeko lanak.
- Baliabideetara sarbide fisiko eta birtuala duen eskola-liburutegia; bai eskola-liburutegian bertan, bai geletan zein etxeetan, eskola orduetan eta ordutegitik kanpo.
- Bilduma fisiko eta birtuala egokiak, gaurkotuak, anitzak, ikasleen aisialdiaren beharrei erantzuten dietenak.
- Teknologia sarean, informazioari sarbidea eta erabilpena errazten duena, ezagupenak eraikitzen eta zabaltzen laguntzen duena.
- Prestakuntza irakasle zein ikasleen beharrei erantzuten diena. Arloen edukiei buruz, informazioari buruzko alfabetizazioari buruz eta irakurketaren interesei buruz.

Alabaina, eskola-liburutegiak ikasleei onura eta ekarpen horiek eskaintzeko, behar beharrezkotzat hartzen da irakasleen arteko kolaborazioa eta baita ikastetxearen zuzendaritzarekin; beste liburuzainekin eta kanpoko eragileekin lankidetzeta ere. Horren bidez, eskola-liburutegitik ikasketak bultzatzeko zerbitzu egokien eskaintza bermatuko da.

1.4. Arazoak non dauden: Liburutegiak erabiltzaileengandik urrun?

Jarraian erabiltzaileek erakutsitako gabeziak ikusiko ditugu, zeinek eskola-liburutegien errealitateaz hausnartzera eramaten gaituzte (Marchesi eta Miret, 2005), besteak beste:

- 1- Egun eskola-liburutegi gehienen helburu nagusia eta ia bakarra literaturaren irakurketa eta honi bultzada ematea izaten da.
- 2- Curriculumaren arlo desberdinak lantzeko eskola-liburutegiaren erabilera eskasa da.
- 3- Irakasleen artean eskola-liburutegiaren erabilera baxua da ikaslerik gabeko orduetan.
- 4- Baliabide eta zerbitzu digital gutxi ditugu eskola-liburutegietan: %10 baino gutxiago dago behar den bezala prestatua.
- 5- Ikasleen aldetik, ikerketak eta eskola-liburutegiaren erabilera bultzatzen dituzten jarduera gutxi daude. Borondatezko irakurketa gomendatzea, informazio bilaketa eskatzea eta liburutegira joatea klase ordutegian oso gutxi ematen da.
- 6- Ikasleek erabil ditzaketen dokumentu desberdinen presentzia mugatua da. Honez gain, baliabide informatikoak erabiltzeko beharra eskatzen duten jarduerak ez dira programetan agertzen kasu askotan.
- 7- Ikasleek eskola-liburutegia ez dute ikusten ikerketa gune, lana antolatzeko gune, ikasteko gune, irakurtzeko gune etab bezala.

Beraz, eskola-liburutegien helburuak eta ondorioak ez datoz bat eta Miretek ondorioztatzen du benetan kezagarria dirudiena ez dela soilik baldintza materialen murrizketa bat dagoela, baizik eta ez direla behar diren praktika onak ematen ikastetxeetan, hau da, eskola-liburutegiek ez dutela behar bezala funtzionatzen (Miret,2008:101).

2. Ikerketaren diseinua

2.1. Helburuak / Hipotesiak

Hurrengoak dira ikerketa hau burutzeko zehaztutako helburuak:

- Eskola-liburutegien kudeaketa eta funtzionamendua zenbait arlotan aztertzea.
- Liburuzainen asebetetze maila aztertzea eskola-liburutegiekiko.
- Ikasleek eskola-liburutegian burutzen dituzten jarduera desberdinak ezagutzea.
- Erakunde publikoek eskola-liburutegiei zuzenduta dituzten programak ikuskatzea.

Hurrengoak dira ikerketa honekin frogatu nahi diren hipotesiak:

- Liburuzaintzako, eskola-liburutegiaren aurrekontua, ordutegia eta baliabideak eskasak dira.
- Liburuzain eta irakasleen arteko koordinazioa zein beste hezkuntza sail arduradunekin koordinazioa mugatua da.
- Eskola-liburutegiek ez dute beste eskola-liburutegi edota udal-liburutegiaren harremanik.
- Eskola-liburutegien kanpo ezta barruko ebaluazioa ez da egiten eta eskola-liburutegiek ez dute erronka argirik.

2.2. Metodologia

2.2.1. Lagina

Hiru ikastetxetako eskola-liburutegitan bildu dira datuak. Ikastetxeek ezaugarri desberdinak dituzte eta honakoak dira:

1 ikastetxea.

Eraikina nahiko berria da eta hiri inguruko auzo batean kokatuta dago. Eskola publikoa da eta 2-12 urte bitarteko ikasleak ditu. Ikasle gehienek beka jasotzen dute ekonomi arazoengatik. Eskolako familien maila sozioekonomikoa oso baxua da eta kultur aniztasun handia dago. Ikasleen erdia baino gehiago ijitoak dira (aspalditik auzoan bizi diren familietakoak) eta gainontzeko asko Hegoameriketatik etorritako familien haurrak. Irakasle askok lan finkoa dute aspalditik eskola horretan eta konpromiso Nolako Eskola Liburutegiak ditugu? Jon Salinas Elorza

handia daukate zailtasunak dituzten familia eta hurrekin lan egiteko. Ohikoa da pertsona boluntarioak, bitartekariak eta giza hezitzaileak aurkitzea irakasleekin elkarlanean. Liburuzainak bere ordutegiaren erdia dauka liburutegian egoteko eta boluntarioen laguntza dauka.

2 ikastetxea.

Eraikin batzuek osotzen dute ikastetxe handi honen espazioa. Hiritik urrun kokatuta dago, mendian, tamaina erdiko herri baten ondoan. Ikasle gehienak autobusez heltzen dira goizero eta gutxi batzuk haien gurasoekin doaz autoz. 0-18 urte bitarteko ikasleek ikasten dute bertan. Itunpeko ikastetxea da eta altua da familien maila sozioekonomikoa. Ikasleren batek Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza jasotzen du, baina nahiko ikasleri homogeneoa da; ez dago kultur aniztasunik. Badaude irakasle beteranoagoak eta gazteagoak. Lan banaketa eta hierarkiak oso argi definituta daude eta harreman gutxi dituzte inguruko hezkuntza agenteekin. Liburuzaina bakarrik eguerdian izaten da liburutegian.

3 ikastetxea.

Jatorrizko eraikina ez da guztiz berria, baina orain dela gutxi handitu dituzte espazio batzuk. Ikastola publikoa da eta 2-12 urte bitarteko ikasleak ditu. Bere ondoan, kale berean, institutua dauka. Ikasle batzuek diru-laguntza jasotzen dute baina erdi-altua da familia gehienen maila sozioekonomikoa. Irakaskuntza, euskaraz indartzeko helburua oso argi daukate eta gurasoak inplikatzeko dituzte zenbait ekitalditan. Orain urte batzuk proiektu berezia egin zuten liburuzaina lortzeko ordutegi osoarekin eta lortu zuten. Beraz, ikastolan aspalditik irakaslea den eskola-liburutegiko arduraduna daukate gaur egun liburutegia dinamizatzen.

2.2.2. Aldagaiak

Ikerketa hau burutzeko, eskola-liburutegien oinarrizko ezaugarri edota aldagaiak hartu dira aztergai modura. Jimenez, Lukas eta Santiagoren (2006) azterketa diagnostikoan azaltzen diren zenbait aldagai hartu dira oinarri.

Aztergai diren aldagaiak hiru multzo nagusitan banandu dira, hala nola 1- “kudeaketa eta funtzionamendua”, 2- “erabilera eta erabiltzaileak” eta 3- “balorazioak”.

Jarraian hiru enbor hauen aldagaiak aipatuko dira, ikerketa honen kokapen orokor bat egin ahal izateko.

Kudeaketa eta funtzionamendua

- Aurrekontua.
- Ordutegia.
- Arduradunaren eta irakasleen arteko koordinazioa.
- Beste liburutegi eta dokumentazio zentroekin harremana.
- Hezkuntza komunitatearen parte hartzea.
- Ebaluazioa.

Erabilera eta erabiltzaileak

- Ikasleen bisitaldiak.
- Ikasleek burutzen dituzten jarduerak.
- Irakasleek burutzen dituzten jarduerak
- Ikasleek eta irakasleek eskola-liburutegiaren inguruan izandako formazioa.
- Erabilera sustatzeko estrategiak.

Balorazioa

- Liburutegiak betetzen dituen funtzioekiko asebetetze maila.
- Hezkuntza-komunitateak ematen dion garrantzia.
- Hobekuntza desiratuak.

2.2.3. Ikerketa tresnak

Ikerketa honetan erabilitako ikerketa tresna bakarra elkarrizketa zuzena izan da. Elkarrizketa hiru eskola-liburutegitako liburuzainei egin zaie, aurretik prestatutako 20 galderak osatzen duten galdetegi batean oinarrituta (ikus 1. Eranskina).

Eskola-liburutegian liburuzainari elkarrizketa egin aurretik, ikasleekin era aktiboan parte hartzeko aukera ere egon da. Eta beste ikastetxean, arratsaldean antolatutako erakusketa bat ikusteko aukera ere izan genuen. Beraz, aztertuak izan diren hiru eskola-liburutegiak zuzenean ikustatu dira. Era berean, ikerketa honetan, liburuzainek helarazitako barne dokumentu, agiri edota araudia ere aztertu dira.


3. Emaizen azterketa

3.1. Kudeaketa eta funtzionamendua

Aurrekontua

Eskola-liburutegientzako oinarrizko aurrekontua edota diru sarrera ikastetxeak berak ematen duena da kurtso hasieran.


Hurrengo grafiko honetan azken (2015-2016) ikastetxeek kurtso hasieran jaso duten diru sarrera ikusten da (eurotan).



1.Irudia. Kurtso hasierako aurrekontua

Hala ere, kurtso hasierako aurrekontuaz gain, liburutegi bakoitzak aparteko diru bultzada jasotzeko aukera du. 1. ikastetxea “kulturartekotasuna bultzatzeko proiektura” aurkezten da eta honen bidez diru laguntza lortzen du. 2. ikastetxeak edozein momentuan aparteko diru bultzada eskatzeko aukera du, momentuko beharrak asetzeko; (aurten adibidez 250 liburu ale berri erosi dituzte). 3. ikastetxeak urte bitarteko proiektu “txikien” bidez lortzen du dirua.

Hurrengo grafiko honetan amaierako aurrekontua ikus dezakegu, kurtsoan zehar jasotako diru sarrera gehitu ondoren.



2. Irudia. Guztizko aurrekontua aparteko diru sarrerak jaso ondoren

Beraz, 1 eta 2 ikastetxeek kurtsoan zehar erabilgarri duten diru kopurua nahiko antzekoa dela esan dezakegu. 3 ikastetxeak, ordea, diru kopuru txikiagoa dauka, 1 ikastetxeak duenaren erdia, hain zuzen. Horrek adierazten digu kurtsorako duten aurrekontua oso aldakorra dela, hau da, ez dela bat ere finkoa.

Ordutegia

Hiru ikastetxeetako liburutegiek ordutegi desberdina dute. Hauek ikusteko ordutegia lau eremutan sailkatu da: jolastordua, eguerdia, eskola ondoren eta klase orduak.

Hurrengo taula honetan ikastetxe bakoitzaren eskola-liburutegia erabiltzeko aukera ikus dezakegu, ordutegi eremuen arabera sailkatuta.

Datuek erakusten digute eskola batek ere ez duela egunean zehar ordutegi osoa betetzen.

1. Taula. *Eskola-liburutegien eguneroko ordutegia*

	<i>Jolastordua</i>	<i>Eguerdia</i>	<i>Eskola ondoren</i>	<i>Klase orduak</i>
<i>1. ikastetxea</i>	o		o	o
<i>2. ikastetxea</i>		o		o
<i>3. ikastetxea</i>		o	o	o

Azpimarratu behar da, klase orduetan zehar liburuzaina liburutegian dagoen ikastetxe bakarra 3. ikastetxea dela. Beste ikastetxeetan liburutegira joateko aukera daukate ikasleek, baina talde bakoitzaren tutore edota irakaslearekin joan behar dute.

Arduradunaren eta irakaslearen arteko koordinazioa

Hiru liburutegietan liburuzainen eta irakasleen arteko koordinazioa nahiko murriztua da.

1. ikastetxean urte hasierako “liburutegia erabiltzeko prestakuntza saioak” finkatzeko bakarrik biltzen dira.

2. ikastetxean, liburuzainak irakasle tutoreei ez die bereziki laguntza berezirik ematen, baina noizean behin irakasleek liburuzainari liburuaren inguruko aholkuak eskatzen dizkiote.

3. ikastetxean oso argi zehazten dira “liburutegiko planean” bakoitzaren ardurak. Adibidez irakasle eta liburuzainak elkarrekin prestatzen dituzte “irakurketa-idazketa bultzatzeko jarduerak”, elkarrekin antolatzen dituzte “jarduera kulturalak” eta “Mikoleta lehiaketa” eta elkarrekin apaintzen dute ikastetxea “Liburuaren eguna” ospatzeko.

Beraz, liburuzain eta irakasleen arteko koordinazio zein beste hezkuntza sailekiko koordinazioa mugatua dela dion hipotesia baieztatua gelditzen da.

Beste liburutegi eta dokumentazio zentroekin harremana

Atal honetan hiru ikastetxeak bi multzo nagusitan sailkatuko ditugu: ACEX² programan parte hartzen dutenak eta parte hartzen ez dutenak.

ACEX programako partaideak 1. eta 3. ikastetxeak dira. Bietan antolatzen dituzte urtero udal liburutegietara bisitaldiak. Eusko Jaurlaritzaren ACEX zerbitzuak antolatzen dituen prestakuntza, koordinazio eta esperientzia trukaketan aktiboki parte hartzen dute beste ikastetxe batzuetako liburuzainekin. Esan beharra dago, 3. ikastetxeko liburuzainak ACEXeko bileretan dinamizatzaile lana egiten duela.

ACEX programako partaide EZ dena 2. ikastetxea da. Honek ez du inolako harremanik beste liburutegiekin, ezta beste ikastetxeekin ere.


Nahiz eta ACEX programako bileretan eskola-liburutegi desberdinak harremanetan egon, baieztaturik geratzen da eskola-liburutegiek ez dutela beste ikastetxetako eskola-liburutegiekin eta udal-liburutegiekin harremanik dion hipotesia.

Hezkuntza komunitatearen parte hartzea.

Liburuzain, irakasle eta ikasleez gain, jende gehiagok parte hartzen du eskola-liburutegietan eta ikastetxe bakoitzaren arabera kanpo inplikazio handiago sumatu daiteke.

² ACEX: Eskolako jarduera osagarrietaz eta extraeskolarez arduratzen den Eusko Jaurlaritzako programa 1994an abian jarri zena.

Hurrengo grafiko honetan, ikastetxe bakoitzean eskolaz kanpoko zenbat pertsonak hartzen duten parte liburutegiko jardueretan ikus dezakegu. Kurtso honetan astero egondako pertsona kopuruaren batz bestekoa da ikusgai dugun zifra.



3. irudia. Asteazkera zehar, liburutegian parte hartzen duen eskolaz kanpoko pertsona kopurua

Goiko grafikoan ikusi daitekeen moduan, 1. ikastetxeko liburutegia da partaidetza gehien duena, honetan boluntario eta laguntzaileen partaidetza handia baitago ikasleei irakurketarekin eta etxerako lanekin laguntzeko klase ondorengo orduetan. Honetaz gain, helduentzako literatura solasaldiak daude arratsaldeko orduetegiaren eta 10 guraso inguru biltzen dira astero.

2. ikastetxean, eskolatik kanpoko pertsona bakar batek erabiltzen du liburutegia, kasu honetan antzinako irakasle bat, irakurtzera eta dokumentazio lana egitera joaten dena noizean behin. Ikasleak autobusez heltzen eta joaten direnez ez da ohikoa gurasoen partaidetza ikastetxeko inolako jardueretan.

3. ikastetxean jarduera batzuk gurasoekin batera antolatzen dira (erakusketak, ospakizunak) eta beste batzuk familiei zuzenduta dira (kultura hitzaldiak, esperientzien aurkezpenak).

Eskola-liburutegien ebaluazioa

Atal honetan ere, hiru ikastetxeak bi multzo nagusitan sailkatuko ditugu: ACEX programan parte hartzen dutenak eta parte hartzen ez dutenak.

ACEX programako partaideak: 1. ikastetxeak urtero memoria idazten du kurtso amaieran eta ACEXek emandako ebaluazio txantiloia betetzen du. 3. ikastetxean, eskola-liburutegiko proiektuaren barruan bost helburu zehazten dira, eta helburu bakoitzeko ebaluazio irizpideak biltzen dira jardura bakoitzerako. Barne ebaluazioarekin batera, ACEXek emandako txantiloia betetzen dute urtero.

ACEX programako partaide EZ dena 2. ikastetxea da. Honetan, kurtso osoko memoria idatzi ondoren, Ikastetxe Proiektuan aipatuko diren liburutegiko helburuak zehazten dira. Aurten, lehen aldiz, Eusko Jaurlaritzak galdetegi bat pasatu die informazio orokor eske, baina ikastetxeak ez du inoiz kanpo ebaluaziorik jaso.

3.2. Erabilera eta erabiltzaileak

Ikasleen bisitaldiak

Atal honetan ikasleen derrigorrezko eta gutxieneko bisitak aipatuko dira. Ikastetxe guztietan liburutegiaren aurkezpen saio bat egiten da kurtso hasieran, liburutegiaren funtzionamendua eta arauak azaltzeko. Bigarren ikastetxeko ikasleek ez dute derrigorrezko bisitaldi gehiago eskola-liburutegira.

1. eta 3. ikastetxeko liburutegiek antolatutako jarduerak jarraian azalduko dira beste atal batean.

Ikasleek burutzen dituzten jarduerak eskola-liburutegian

Hiru ikastetxeetako liburutegiek hainbat jarduera desberdin eskaintzen dituzte egunean zehar, hauetako batzuk klase orduetan dira, beste batzuk klase orduetatik kanpo, hurrengo taulan ikus dezakegun moduan.

2. Taula. Eskola-liburutegian burutzen diren jarduerak

	<i>Klase orduak</i>	<i>Klase ordutik kanpo</i>
<i>1. ikastetxea</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa idazketa errefortzua. - “ozenki irakurri” irakurzaletasuna bultzatzeko. - Haur Hezkuntzan ipuin kontaketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Errefortzu jarduerak. - Irakurketa librea. - Ipuin kontaketa. - Solasaldiak. - “irakurketa aitabitxi/amabitxi” - Ingelesa ordenagailuetan
<i>2. ikastetxea</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloak, irakasleekin irrati saioak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Liburu mailegua. - Diplomen banaketa irakurritako liburuen arabera. - Etxerako lanak edota irakurketa boluntarioa.
<i>3. ikastetxea</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Saio zehatzak tutore eta liburuzainak antolatua (adibidez informazioa bilketa lana) 	<ul style="list-style-type: none"> - Kontsulta. - Etxerako lanak. - Deialdi kulturalak. - Argazki eta ipuin lehiaketak. - Erakusketak. - Hitzaldiak.

2. Taulan argi ikus daiteke 1. eta 3. ikastetxeetako liburutegiak direla jarduera gehien eskaintzen dituztenak, bai klase orduetan eta baita klase orduetatik kanpo ere.

Irakasleek burutzen dituzten jarduerak

Lehen Hezkuntzako irakasleen kontaktu nagusia liburutegiarekin 1. eta 2. ikastetxeetan, liburuak hartzeko eta klase liburutegirako eramateko da, hau da, mailegurako. 1. ikastetxeko Haur Hezkuntzako irakasleak astean behin joaten dira liburutegira goizeko ordutegian.

3. ikastetxeko irakasleek, liburuzainarekin irailan adosten dituzte ikasturtean zehar irakurketa eta idazketa bultzatzeko egingo dituzten jarduerak.

Ikasleek eta irakasleek eskola-liburutegiaren inguruan izandako formazioa

Hiru ikastetxetako ikasle guztiek ezagutzen dute liburutegia, halaber guztietan egiten da bisita gidatua kurtso hasieran. Azpimarratu beharra dago, 1. ikastetxeko liburutegiak, planoak eta arauak ematen dizkietela ikasleei kurtso hasieran, eta mailegu zerbitzua erabili ahal izateko beharrezkoa dela karnet bat egitea.

Liburuzainek jasotako formazioari dagokionez, 1. eta 3. ikastetxeetako liburuzainak irakasleak dira, baina 2. ikastetxeko liburuzaina ez da irakaslea. Liburuzain honek filologian lizentziaduna da eta “Biblioteconomia y Archivista” deituriko kurtso bat ikasi zuen unibertsitateko ikasketak amaitu ondoren.

Erabilera sustatzeko estrategiak

Hiru ikastetxeetan liburuak ondo sailkatuta eta ondo zainduta daude, irakasleei liburuak eskaintzen dituzten aukera desberdinen informazioa pasatzen zaie eta mailegua bultzatzen da. 1. eta 3. ikastetxeetan eskola-liburutegian ekitaldi erakargarriak antolatzen dira arratsaldean.

3.3. Liburuzainen balorazioak

Liburutegiak betetzen dituen funtzioekiko asebetetze maila (oinarrizko lorpenak)

1. ikastetxeko eskola-liburutegiaren jarduera urtero ebaluatzen dute. Ebaluazioan liburutegiko karneta kopurua zenbat igo den urtean edo egindako liburu mailegua zenbatekoa izan den idazten dute, lortutakoa eta hobetzeko proposamenak idazten dira baita ere.

2. ikastetxean liburuzainak egiten du balorazioa eta beharrak jasotzen ditu hurrengo ikasturteari begira.

3. ikastetxean urtero ebaluaketa egiten da eta Eskola-liburutegiko Proiektuan zehaztutako bost helburuak ebaluatuak izan behar dute (jardueren betetze maila, galdetegiak, iritzien bilketa, datu estatistikoak).

Beraz, eskola-liburutegiaren kanpo ezta barruko ebaluazioa ez dela egiten eta eskola-liburutegiek ez dutela hobekuntza erronka argirik, baieztatua geratzen da 2. ikastetxean baina ezeztatua erakunde instituzional batek (ACEX) kudeatzen dituzten ikastetxeetan.

Hezkuntza komunitateak ematen dion garrantzia

1. eta 3. ikastetxeak dira ikas-komunitateren partaidetza handiagoa dutenak. 2. ikastetxean hezkuntza komunitatearen partaidetza oso baxua da, edo are gehiago, baieztatu daiteke ikas-komunitateak ez duela inolako partaidetzarik eskola-liburutegian.

1. ikastetxean gurasoek parte hartzen dute ospakizun eta deialdietan. 20 guraso inguruk eskola-liburutegiko karneta dauka eta astero parte hartzen dute literatur solasaldietan.

3. ikastetxean bisitak antolatzen dira arratsalde, erakusketak eta hitzaldiak badaude gurasoentzat eta partaidetza handia lortzen da.

Hobekuntza xedeak

Nahiz eta liburuzain bakoitzak xede desberdinak dituen, desio batzuetan bat datoz. Hauek dira eskola-liburutegietako liburuzainek aipatutako desioak.

3. Taula. *Liburuzainen xedeak*

1. ikastetxea	<ul style="list-style-type: none"> - Liburuzainarentzat eskola-liburutegiari eskaintzeko ordu gehiago. - Liburu gehiago euskaraz. - Erakus apal gehiago.
2. ikastetxea	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola orduetan gehiago erabiltzea. - Liburuzainarentzat eskola-liburutegiari eskaintzeko ordu gehiago.
3. ikastetxea	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabide gehiago. - Espazio handiagoa. - Aurrekontu handiagoa

Goiko taulan ikus daitekeen moduan, eskola-liburutegiari eskaintzeko ordu gehiago eskatzen ez duen liburuzain bakarra, 3. ikastetxekoa da; era berean, honek espazio eta aurrekontu gehiago eskatzen duen bakarra da.

Beraz, eskola-liburutegientzako ikastetxeen aurrekontua eskasa dela dioen hipotesia baieztatua geratzen da.

4. Ondorioak

- Urte batetik bestera aurrekontua ez da egonkorra, eskola-liburutegiek ez baitakite zenbat diru izango duten ikasturteko behar izanei eta berrikuntzei aurre egiteko; ondorioz, aurrekontuaren ziurgabetasunaren aurrean hainbat jarduera ez dira programatzen.
- Eskola-liburutegien ordutegia oso murriztua da, ondorioz asko mugatzen zaie erabilera ikasleei eta ikas-komunitateari.
- ACEX programan parte hartzen duten eskola-liburutegi eta liburuzainek, konpromisu handiagoa dute eskola-liburutegiarekin eta baita hezkuntza komunitatearekin ere. Ondorioz, programa instituzionalaren partaide diren eskola-liburutegien funtzionamendua egokiagoa da.
- ACEX programaren partaide ez den ikastetxearen eskola-liburutegiak ez du inolako loturarik hezkuntza komunitatearekin.
- Liburuzain dinamikoak dituzten eskola-liburutegiek ikasleen presentzia askoz handiagoa dute.
- Liburuzaina eta irakasleen arteko koordinazio handirik ez dago eta honek kalte egiten dio eskola-liburutegiaren funtzionamendu egokiari; ondorioz, eskola-liburutegiaren potentzialtasunaz ez du behar bezalako probetxua ateratzen.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- ACEX, *Eskola-Liburutegietarako Gida Didaktikoa*. Acex Programa. Bizkaia.
- DURBAN ROCA, Gloria (2010). *La biblioteca escolar, hoy. Un recurso estratégico para el centro*. Barcelona: Graó.
- GOMEZ HERNANDEZ, Jose A. (2002). *Los problemas de las bibliotecas escolares de la región de Murcia en un contexto de crisis del sistema educativo*. Facultad de Ciencias de la Documentación. Universidad de Murcia.
- INTERNATIONAL FEDERATION OF LIBRARY ASSOCIATIONS AND INSTITUTIONS (IFLA) eta UNESCO, *Directrices para la biblioteca escolar*, 2002.
- JIMÉNEZ FERNANDEZ, Conchi (koord) (2008). *Anuario de bibliotecas españolas 2008*. Málaga: Fundación Alonso Quijano.
- JIMENEZ, O, LUKAS, J. eta SANTIAGO K. (2006). *Hego Euskal Herriko eskola-liburutegien erabilera, kudeaketa eta funtzionamendua*. Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-metodoen Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MARCHESI, Álvaro eta MIRET, Inés (zuzendariak) (2005). *Las bibliotecas escolares en España*, Madrid: Fundación German Sánchez Ruiperez/IDEA.
- MILLAN, Jose Antonio (koord). *La lectura en España. Informe 2008. Leer para aprender*. Madrid: Federación de gremios de editores de España.
- MIRET, Inés (2008). “Bibliotecas escolares, (aún más) hoy” ondorengo txostenean MILLAN, J.A. (koord): *La lectura en España. Informe 2008. Leer para aprender*. Madrid: Federación de gremios de editores de España.
